

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 31/2023 Foru Dekretua, ekainaren 20koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoaren berezko muga naturalak eta beste muga naturalak eta beste muga jakin batzuk dituzten zonetarako laguntzak arautzen dituzten oinarriak, baita 2023rako deialdia ere

1962an Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) sortu zenetik, politika hori sektorearen erronketa eta herritarren behar berrietara egokitzen joan da, hainbat erreformaren bidez.

NPBren azken erreforma 2021eko abenduan amaitu zen, oinarriak ezartzen dituzten hiru erregelamendu argitaratuta eta, dagozkien erregelamendu eskuordetu eta betearazpenekin batera, 2023-2027 aldian NPBren aplikazioa araututa, luzapen posibleei kalterik egin gabe.

Alde batetik, 2021/2115 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko abenduaren 2koa, nekazaritza politika bateratuaren esparruan (NPBren plan estrategikoak) estatu kideek landu behar dituzten plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen dituena, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatua, eta 1305/2013 (EB) eta 1307/2013 (EB) Erregelamenduak indargabetzen dituena.

Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2116 (EB) Erregelamendua, 2021eko abenduaren 2koa, nekazaritza politika bateratuaren finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa eta 1306/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena.

Eta, azkenik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2117 (EB) Erregelamendua, 2021eko abenduaren 2koa, erregelamendu hauek aldatzen dituena: nekazaritzako merkatuen antolaketa erkideari buruzko 1308/2013 (EB) Erregelamendua; nekazaritzako produktuen kalitate araubideei buruzko 1151/2012 (EB) Erregelamendua; mahastizaintzako eta ardogintzako produktu aromatizatuen adierazpen geografikoei buruzko 251/2014 (EB) Erregelamendua, eta nekazaritza sektorean EBko eskualde ultraperiferikoen aldeko neurriak ezartzen dituena, (EB) 228/2013 zenbakikoa.

NPB berria, 2023tik 2027ra aplikatuko dena, aurreko NPBaren funtsezko elementuei eutsiko die, baina laguntzen azken onuradunek bete beharreko baldintzen deskribapenean oinarritutako politika izatetik emaitza zehatzak lortzera bideratutako politika izatera igaroko da, hiru helburu orokorre lotuta: epe luzera elikagaien segurtasuna bermatuko duen nekazaritza sektore adimentsua, lehiakorra, erresilientea eta dibertsifikatua sustatzea; ingurumenaren babesa, biodibertsitatea barne, eta klimaren aldeko ekintza babestea eta indartzea, eta Batasunaren ingurumenari eta klimari buruzko helburuak lortzen laguntzea, besteak beste, Parisko Akordioari jarraiki hartutako konpromisoak; eta landa eremuetako ehun sozioekonomikoa indartzea. Helburu orokor horiek, era berean, berriazko bederatzi helburutan banatzen dira. Helburu horiek jasangarritasunaren hiru zutabeetan oinarritzen dira, eta nekazaritza sektorea modernizatzeko zeharkako helburu komun batekin osatzen dira, landa eremuen ezagutzaren, berrikuntzaren eta digitalizazioaren bidez.

2023-2027 NPBren berrikuntza nagusietako bat da estatu kide guztiek NPBren Plan Estrategiko (NPBPE) bakarra izan behar dutela, NPBren helburuak lortzeko laguntza esku hartzeak eta Europako Itun Berdearen anbizioa jasotzeko.

Ildo horretan, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak koordinatu zuen hiru urte inguruko lan prozesu baten ondoren –autonomia erkidegoek parte hartu zuten prozesu

horretan, bai beharren diagnostikoaren eta analisiaren hasierako fasean, bai esku hartzeen estrategia eta diseinua artikulatzeko ondorengo fasean, 2022ko abuztuaren 31n Europako Batzordeak Espainiako NPBren Plan Estrategikoa onartu zuen, C (2022) 6017 Erabakiaren bidez.

Lehen zutabearen esparruan programatutako laguntza esku hartzeak (laguntza zuzenak eta sektorialak, NBEF funtsak finantzatuak) eta bigarren zutabeko landa garapeneko esku hartzeak (LGENF funtsak batera finantzatuak) jaso dira Espainiako NPBPE horretan. Azken horiek autonomia erkidegoetan ezarri eta garatzen dira, kasu bakoitzean ezarri diren eskualde berezitasunekin eta autonomia erkidego bakoitzak bere lurralderako programatu dituen esku hartzeen eta aurrekontuen arabera. Horren ondorioz, Euskadiren kasuan, NBEF funtsaren esku hartze sektorialeak eta zuzeneko ordainketa moduko esku hartzeek gain, landa garapeneko 18 esku hartze programatu dira (LGENF).

Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, NPBPE onartu ondoren, arau pakete zabala prestatu du, NPBPE behar bezala eta eraginkortasunez ezartzen dela ziurtatzeko. Besteak beste, hauek nabarmendu behar dira:

- 30/2022 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza Politika Erkidea eta hari lotutako beste gai batzuk kudeatzeko sistema arautzen duena.
- 1045/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Nekazaritza Politika Erkidearen jasangarritasunerako oinarrizko laguntza eskubideei buruzkoa.
- 1046/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikokoaren eta NBEF eta LGENF nekazaritza funts europarren gobernantza arautzen duena.
- 1047/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoko esku hartzeak eta beste laguntza batzuk kudeatzeko eta kontrolatzeko sistema arautzen duena.
- 1048/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, 2023tik aurrera zuzeneko ordainketa moduko esku hartzeak aplikatzeari eta Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikokoaren esparruan betekizun komunak ezartzeari, eta kudeaketa eta kontrol sistema integratuaren eskaera bakarra arautzeari buruzkoa.
- 1049/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, zuzeneko ordainketak, landa garapeneko eta POSEI programako urteko ordainketa jakin batzuk jasotzen dituzten onuradunek bete beharreko baldintza indartuak eta gizarte baldintzak aplikatzeko arauak ezartzen dituena.
- 147/2023 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoko esku hartzeak zigortzeari buruzkoa.

Euskadin programatutako landa garapeneko 18 esku hartzeen (LGENF) artean, muga naturalak edo berariazko beste muga batzuk dituzten eremuetarako laguntzei buruzkoak daude. Laguntza horiek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 71. artikuluan daude araututa, eta honako jardun ildo hauek biltzen ditu: mendi eremuengatikoa konpentsaziozko ordainketak eta natura muga nabarmenak dituzten beste eremu batzuegatiko konpentsaziozko ordainketak.

Horregatik, Espainiako NPBPEn xedatutakoaren babesean, eta lehen aipatutako NPBren eremuan aplikatu beharreko estatu arauak betez, esku hartze horietarako laguntzen lehen deialdia antolatu behar da Arabako Lurralde Historikoan.

Nabarmendu behar da, Espainiako NPEaren Plan Estrategikokoaren arabera, nahiz eta zona hautagarriko nekazari guztiei eskaini beharreko esku hartzea izan, eta ezinezkoa izan nekazari mota bat edo produkzio orientazio bat aldeztetik diskriminatzea, bai bereiz daitekeela laguntza maila, aurre egindako mugen larritasunaren edo ustiapen sistemaren arabera. Horiek horrela, laguntza baliogabetu ere egin daiteke beharrezkoa ez dela frogatzen bada.

NAEMek egindako "Muga naturalak eta berriazko beste muga batzuk dituzten eremuetan jarduera anitzeko nekazari sistemari emandako laguntza mailaren azterketa" k agerian uzten du jarduera anitzeko nekazariak ez direla iristen laguntza jasotzeko gutxienekotzat jotzen den 25 euro/ha-ko desabantaila atalasea, eta, beraz, justifikatu egiten du eskualdeko agintariek laguntzarik ez ematea sistema horri, hala erabakitzen badute. Euskal Autonomia Erkidegoak aukera hori hautatu du, eta, beraz, jarduera anitzekoak ez diren nekazari bano ez zaie konpentsatuko.

Horregatik, onuradunentzat onargarritasun baldintza gisa sartu da haiek kalifikatzea jarduera anitzekoak ez diren nekazari gisa.

Deialdia prestatzeko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarri-rako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako legearen testuategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuak eta Emakume Nekazarien Estatu-tuaren urriaren 15eko 8/2015 Legeak ezarritako araugintza esparrua.

Xedapen hau bat dator Foru Gobernuaren Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako arauen kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioekin.

Egindako txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik, Diputa-tuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoan muga naturalak edo bestelako berriazko mugak dituzten eremuetarako laguntzen oinarri arautzaileak onartzea, l. eranskineko artikuluen arabera.

Bigarrena. Onestea, 2023. urterako, dirulaguntza horietarako deialdia, honako ezaugarri hauekin:

a) Deitutako esku hartzeak:

– Mendialdeko eskualdeetako konpentsaziozko ordainketak.

– Muga natural garrantzizkoak dituzten gunetarako edo mendikoak ez diren alde behar-tsuentzako konpentsaziozko ordainketak.

b) Laguntza-primaren zenbatekoa, hektareako eurotan, honako hau izango da bi eremuetako bakoitzerako:

– Mendiko eremuetako konpentsazio-ordainketak: 84,65 euro/ha.

– Mendikoak ez diren muga natural esanguratsuek edo eremu ahulak dituzten beste eremu batzuetarako konpentsazio-ordainketak: 61 euro/ha.

c) Eskaerak aurkezteko epea eta tokia:

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskabideak abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuaren IV. tituluan aurreikusitako eskaera bakarrean sartuko dira (1048/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, 2023tik aurrera zuzeneko ordainketa moduko esku hartzeak aplikatzeari eta Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan betekizun komunak ezartzeari, eta kudeaketa eta kontrol sistema integratuaren eskaera bakarra arautzeari buruzkoa).

Nolanahi ere, aintzat hartuko dira eta baliozkoak izango dira 2023ko martxoaren 1etik aurreko paragrafoan aipatutako eskaera bakarra aurkezteko epea amaitu arte xede horrekin aurkeztutako laguntza eskaerak.

Eskaera bakarra aurkezteko epe hori luzatuz gero, berez eta aldaketa eta besterik gabe den-bora bererako luzatuko da laguntza lerro hauetarako eskaerak aurkezteko eta aldatzeko epea.

Eskaera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren eskualdeko nekazaritza bulegoetan egingo da, edo <https://npb-pac-2023.nekanet.net> web atariaren bidez. Atari horretara ziurtagiri digitalaren bidez sartu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe (urriaren 1eko 39/2015 Legea).

d) Kreditu erreserbak:

1.485.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko gastuen aurrekontuko 40101. G/414400/47900405 "Alde behartsuentzako konpentsaziozko kalte ordainak" partidaren kontura.

Kreditu horiei zenbateko gehigarriak gehitu ahal izango zaizkie, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100era arte, bai eta edozein arrazoiengatik aurrekontu-partidan gerta daitekeen kreditu-gehikuntzagatik ere.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko titularrari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Xedapen indargabetzailea. Foru Dekretu honen aurka doazen maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak indargabetzea, eta, bereziki 37/2016 Foru Dekretua, maiatzaren 10ekoa

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

I. ERANSKINA

1. artikulua. Xedea

1.1 Foru Dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan oinarri arautzaileak ezartzea nekazariak zati batean konpentsatzeko laguntzak emateko, mendialdeetan edo mendikoak ez diren eta muga natural esanguratsuak dituzten beste eremu batzuetan nekazaritzako ekoizpenak dituen zailtasunen ondoriozko kostu gehigarriengatik eta diru-sarrerengatik.

1.2 Ezarritako laguntza lerroak honetarako dira:

– Mendialdeko eskualdeengatik konpentsaziozko ordainketak.

– Muga natural garrantzizkoak dituzten guneeengatik konpentsaziozko ordainketak.

2. artikulua. Definizioak

Foru dekretu honi II. eranskinean jasotako definizioak aplikatuko zaizkio, baita NP Bren laguntzak arautzen dituen Estatuko araudian ezarritako definizioak ere.

3. artikulua. Hautagarritasun baldintzak

3.1 Honako hauek dira muga naturalak edo berariazko beste muga batzuk dituzten eremuak:

– Mendiko aldeak.

– Bestelako muga natural garrantzizkoak dituzten guneeak.

3.2 Ustiategiak, osorik edo zati batean, muga naturalak edo berariazko beste muga batzuk dituen eremu batean egon behar du. Zonak udal mailan kalifikatu dira, eta udalerrriak bi guneeetako batean sartu dira, mendi guneeetan eta beste muga natural esanguratsu batzuk dituzten guneeetan, 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 32. artikulua araberaren arabera izendatutako guneeetan oinarrituta.

Udalerrien zerrenda eta ondoriozko eremuen mapa Nekazaritza Ministerioaren webgunean egongo dira eskuragarri. Udalerri bakoitzaren kalifikazioa helbide honetan kontsulta daiteke:

https://www.mapa.gob.es/es/desarrollo-rural/temas/programas-ue/periodo23_27.aspx.

3.3 Foru dekretu honen babesean, ustiategi eta azalera hauek lagunduko dira:

a) Eskaera bakarra Arabako Lurralde Historikoan aurkezten duten nekazaritza ustiategiaren kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden mendi guneeetako eta muga natural esanguratsuak dituzten guneeetako azalera hartuko da kontuan, 3.2 apartatuan ezarritako mugaketaren arabera.

b) Euskal Autonomia Erkidegokoa ez den beste autonomia erkidego batetik datozen eskaerei dagokienez, 3.2 apartatuaren arabera mugatutako Euskal Autonomia Erkidegoko azalera hartuko dira kontuan, baldin eta azalera gehienak Araban badaude. 8.2 artikulua aplikatuz kalte ordaina jaso dezakeen azalera zehazteko, lehenik eta behin, eskaera bakarra aurkezten den autonomia erkidegoan dauden azalera hartuko dira kontuan.

4. artikulua. Onuradunen betekizunak

4.1 Laguntza hauen onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoa, edo nortasun juridikorik gabeko erakundeak, edo pertsona fisiko edo juridikoen taldea, ondasun erkidegoak, jaraunspen banatugabeak edo jaraunspen erkidegoak, merkataritza xederik gabeko sozietate zibilak eta titulartasun partekatuko araubidean dauden ustiategiak barne, betiere eskaera bakarra aurkezten badute eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Nekazari aktibotzat jotzea, abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuak, 2023tik aurrera zuzeneko ordainketa moduko esku hartzeak aplikatzeari eta Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan betekizun komunak ezartzeari buruzkoak, eta kudeaketa eta kontrol sistema integratuaren eskaera bakarra arautzeari buruzkoak, ezarritakoaren arabera.

b) Nekazari ez-pluriaktibotzat jartzea.

c) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla frogatzea. Sozietate zibilen, titulartasun partekatuaren eta ondasun erkidegoen kasuan, kide guztiak Gizarte Segurantzaren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatuko da.

d) Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12. artikuluan onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzea.

e) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako martxoaren 16ko 1/2023 Legearen 23 artikulua arabera, sexu bazterkeriagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penalik ez izatea.

4.2 Beste pertsona juridiko batzuen partaidetza duten pertsona juridikoei dagokienez, sozietatearen osaera adierazi behar dute, kide diren pertsona fisiko guztiak identifikatuta; horrez gain, horietako bakoitzak ustiategi onuradunaren kapitalean zein ehuneko daukan adierazi behar dute.

5. artikulua. Laguntza eskaerak

5.1 Urtero laguntzen deialdia onartuko da eta haren barruan honakoak jasoko dira:

- Zein laguntza lerrotarako egiten den deialdia.
- Deialdia ebazteko erreserbatzen diren kredituak.
- Laguntza-primaren zenbatekoa, hektareako eurotan, bi eremuetako bakoitzerako.
- Eskabideak aurkezteko epealdia eta tokia.

5.2. Laguntza eskaerak eskaera bakarrean jasoko dira, horretarako finkatutako datekin bat etorritik. Eskaera epea automatikoki luzatu ahal izango da eskaera bakarra egiteko epea luzatzen den heinean; era berean, eskaerekin batera 6. artikuluan zerrendatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

5.3 Laguntza eskaera bat edo beste edozein aitorpen osorik edo zati batean idatziz erretiratu ahal izango da, eta eskaera egiten den urteko abuztuaren 31 izango da azken eguna. Aurrekoa gorabehera, ezin izango da erretiratu agintari eskudunak nekazariari jakinarazi dionean azale-ren monitorizazio sistema edo administrazio kontrolak ez diren beste bitarteko batzuen bidez jakinarazitako eskaera bakarrean ez-betetze kasuak daudela, edo jakinarazi dionean tokian bertan kontrol bat egiteko asmoa duela edo monitorizatu ezin den baldintza bat egiaztatzeke asmoa duela, edo, lurraren gaineko kontrol batek edo monitorizatu ezin den betekizun baten egiaztapenak agerian utzi badu ez-betetze kasu bat, ez da onartuko ez-betetzeak eragindako alderdiak erretiratzea.

5.4. Onuradunak aurkeztutako laguntza eskaerak edota bestelako ziurtagiriak edozein momentutan zuzendu eta aldatu ahal izango dira ordainketaren aurretik, baldin eta agintaritzak eskudunak kasu zehatzaren ebaluazio orokorraren gainean onartutako ageriko akatsik badago eta onuradunak fede onez jardun badu.

5.5. Laguntza eskaera bakoitzean, datuak zuzen betetzeaz gain, eskatzailearen adierazpen bat aurkeztuko da; adierazpen horretan honakoak jasoko dira:

- Laguntza jasotzeko baldintzak ezagutzen dituela.
- Ez du beste nekazaritza-laguntzarik eskatu helburu bererako.

5.6 Laguntza horiek jasotzeko baldintzak bete behar dituzten eta laguntzetatik eratorritako konpromisoak hartzen dituzten elkarte ustiategietako titularrak eta, hala badagokio, bazkideak izango dira eskabide bakarrean agertzen direnak, eskaera bakarra aldatzeko epea amaitzen den egunean.

6. artikulua. Eskaeraren dokumentuak

6.1 Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela ziurtatzen duen agiria.

Laguntza eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak Nekazaritza Sailari baimena ematea zerga betebeharraren eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria zuzenean eskuratzeko. Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita uka dezake baimen hori, eta berak aurkeztu beharko ditu eskakizun horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Ondorio horietarako, otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuan, urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak partez aldatuan (azken foru dekretu hori dirulaguntzen onuradunek zerga eginbeharrak betetzen dituztela kreditatzeko prozedurari eta horrela kreditatu beharrekiko salbuespen araubideari buruzkoa da), xedatutakoa aplikatuko da.

6.2 Laguntza eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak baimena ematea Nekazaritza Sailak zuzenean eskura ditzan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aitorpenak eskatzaileengandik, pertsona fisikoak badira, edo bazkide guztiengandik, elkarte ustiategiaren edo pertsona juridikoen kasuan. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aitorpenak aurkeztu beharko ditu. Eskatzaileek edo elkarte ustiategietako bazkideek edo pertsona juridikoez zergak Arabako Lurralde Historikoan ordaintzen ez dituztenean, aitorpen hori aurkeztu beharko dute beti.

6.3 Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aitorpenean nekazaritza jardueratik eratorritakoez bestelako lan etekinik edo jarduera ekonomikoen etekinik egotzi bada, erakunde ordaintzailearen ziurtagiri bat aurkeztuko da, lehenengo kasuan, edo erantzukizunpeko adierazpen bat, bigarren kasuan, ekitaldi fiskal horretan lan egindako ordu kopurua jasotzen duena.

6.4 Foru aldundiak beretzat gordetzen du eskubidea betiere beharrezko deritzon dokumentazio osagarria eskatzeko dekretu honetan ezarritako laguntzak eskatzen dituzten pertsonen, eskaerak behar bezala balioetsi ahal izateko.

6.5 Eskaeretan akatsak antzematen badira edo zerbait falta bada, organo instrukzio egileak errekerimendua egingo die interesdunei eskatzen diren baldintzei buruzko akatsak konpontzeko eta/edo eskatzen diren agiriak aurkezteko 10 egun baliioduneko epean, errekerimenduaren

jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita,, eta adieraziko die hori egin ezean atzera egin dutela ulertuko dela, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

7. artikulua. Izapidetzea

7.1 Eskaerak aurkezteko epealdia amaituta, espedienteak Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak izapidetuko ditu.

7.2 Espedientea izapidetzen den bitartean, organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko dizkio eskatzaileari (pertsonari edo erakundeari), ebazpen proposamena egiteko beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

7.3 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzak norgehiagoka prozedura bidez emango dira. Laguntza eskaerei dagozkien finantza premiek laguntza horretarako aurrekontu erabilgarria gairatzen badute, aurrekontua onuradun guztien artean banatuko da proportzionalki.

7.4 Laguntza horiek balioetsiko dituen kide anitzeko organoa ondoren aipatzen diren pertsonak edo, beharrezkoa balitz, haien ordezkoez osatuko dute:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua.
- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren teknikaria.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.

Ahal den guztietan, emakumeen ordezkariak ere izango dira organo horretan.

Foru dekretu honetan ezartzen ez diren kasuei eta zirkunstantziei dagokienez, balorazio batzordeak bidezkoz jotzen dituen irizpideak aplikatu ahalko ditu modu arrazoituan.

8. artikulua. Laguntzaren kalkulua. Azalera. Zenbatekoak

8.1 Laguntza horiek urtean behin emango dira, kontrolen ondoren zehaztutako urteko eskaera bakarrean aitortutako ustiategiaren nekazaritza azalaren arabera, baldin eta mendi guneean edo mendikoak ez diren mugak dituzten guneean badago, 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Diruz lagundu daitekeen nekazaritza azalera abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuaren II. tituluko II. kapituluaren oinarrituta zehaztuko da.

8.2 Mendialdeetan kokatutako nekazaritza-azalera diruz lagungarriko laguntzaren gehieneko zenbatekoa 297 euro/ha-koa izango da, eta 214 euro/ha-koa beste muga natural esanguratsu batzuk dituzten zonatarako. Primaren zenbatekoa laguntza-deialdi bakoitzean zehaztuko da.

8.3 Urtean laguntza bat emango da diruz lagundu daitekeen nekazaritza azalera hektarea bakoitzeko. Ustiategi bakoitzeko diruz lagun daitekeen gehieneko azalera 30 hektareakoa da, baina beharrezkoa izango da, zerrenda honen arabera:

- Lehenengo 15 hektareei primaren ehuneko 100 ordainduko zaie.
- Hurrengo 10 hektareei laguntzaren ehuneko 60 ordainduko zaie.
- Hurrengo 5 hektareei primaren ehuneko 20 ordainduko zaie.
- 30 hektarea baino gehiagoko azalerek ez dute laguntzarako eskubiderik sortuko.

Tarte bakoitzean, kalkulua egingo da zona bakoitzeko azalera kontuan hartuz, onuradunarentzat aldekoena den egoera (mendialdeko zonari laguntza) abiapuntu dela.

Elkarte-ustiategietan, ordainketak proportzionalki handitzen dira, nekazari ez-pluriaktibotzat hartzen diren bazkideen kopuruarekiko, gehienez ere bi bazkiderekin elkarte-ustiategi bakoitzeko (eta gehienez 60 ha/ustiategi bakoitzeko). 8.3 paragrafoan ezarritako tartea, lehenik eta behin, pertsona ez pluriaktiboetako bati aplikatuko zaizkio, eta diruz lagun daitekeen azalera 30 ha-tik gorakoa bada, bigarren pertsona ez-pluriaktiboari aplikatuko zaizkio berriro tartea.

8.4 Laguntza hauek ez zaizkie emango diruz laguntzeko irizpideak edo baldintzak ez bete-tzeagatiko administrazio zigorrek aplikatu aurretik 300 eurotik beherako zenbatekoa duten nekazariei.

9. artikulua. Kontrolak

9.1 Onuradunek onargarritasun betekizunak eta foru dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, Nekazaritza Sailak administrazio kontrolak, monitorizazio kontrolak eta baldintzen kontrolak egingo ditu, honako arau hauetan ezarritakoaren arabera: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2116 (EB) Erregelamendua, 2021eko abenduaren 2koa, nekazaritza-politika bateratuaren finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa eta 1306/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena; 1047/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Nekazaritza Politika Erkideko plan estrategikoko eta beste laguntza batzuetako esku hartzeen kudeaketari eta kontrolari buruzkoa; 1049/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, zuzeneko ordainketak, landa garapeneko ets POSEI programako urteko ordainketa jakin batzuk jasotzen dituzten onuradunek bete beharreko baldintza indartuak eta gizarte baldintzak aplikatzeko arauak ezartzen dituena.

9.2. Onuradunak utzi behar du Arabako Foru Aldundiak ustiategian agindutako ikuskatze bisita guztiak egiten, eta eman behar du laguntzaren gainean eskatzen zaion informazio guztia.

10. artikulua. Zigorrek, murrizketak eta zehapenak aplikatzea

10.1. Zigorrek eta murrizketak aplikatzeko, 2023ko otsailaren 28ko 147/2023 Errege Dekretuan xedatutakoa bete behar da. Dekretu horren bidez, Nekazaritza Politika Erkidearen plan estrategikoan jasotako esku hartzeetan zigorrek aplikatzeko arauak ezartzen dira.

10.2. Atariko eta lehenengo tituluetan zehaztutako zigorrek aplikatuko dira, eta izaera mugatzaile gabe, honako hauek:

- a) Eskabidea epez kanpo aurkeztu izana.
- b) Nekazaritzako lurzati guztien azalaren aitortzen osatugabea.
- c) Baldintzak.
- d) Gainazalen gehiegizko aitortzenaren ondoriozko zigorra.

10.3. Halaber, aplikatzekoak izango da, besteak beste, abenduaren 23ko 30/2022 Legean, Nekazaritza Politika Erkidea eta hari lotutako beste gai batzuk kudeatzeko sistema arautzen duenean, eta abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretuan, zuzeneko ordainketak, landa garapeneko eta POSEI programako urteko ordainketa jakin batzuk jasotzen dituzten onuradunek bete beharreko baldintza indartuak eta gizarte baldintzak aplikatzeko arauak ezartzen dituenan, definitutako arau hausteen eta zehapenen araubidea.

10.4 Ez da zigorrik ezarriko ez-betetzea ezinbesteko arrazoiengatik edo 2023ko otsailaren 28ko 147/2023 Errege Dekretuaren 5. artikuluan aurreikusitako beste inguruabar batzuegatik gertatzen bada. Errege Dekretu horrek Nekazaritza Politika Erkidearen plan estrategikoan jasotako esku hartzeetan zigorrek aplikatzeko arauak ezartzen ditu.

10.5. Onuradunak laguntza jasotzeko datu faltsuak eman dituela edo zabarkeriagatik beharrezko informazioa eman ez duela erabakitzen denean, laguntza ukatuko zaio edo osorik kenduko zaio. Gainera, onuraduna laguntza edo esku hartze beretik kanpo geratuko da irregulartasuna antzeman den urte naturalean edo laguntza deialdian, eta hurrengo bi urte naturaletan edo laguntza deialdian.

11. artikulua. Baldintza artifizialak sortzea

11.1 Onuradunek baldintza artifizialak sortzeari dagokionez, abenduaren 27ko 1047/2022 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoa beteko da, eta arreta berezia jarriko da ustiategien zatiketa artifizialean, degresibitatearen aplikazioa saihesteko edo minimizatzeke, bai eta diruz lagun dai-tezkeen gehieneko azalerak saihesteko ere.

11.2. Pertsona fisiko titularra edo elkartutako ustiategietako bazkideak bi ustiategitan edo gehiagotan inskribatuta egonez gero, dela bakarka, dela elkartutako ustiategi bateko bazkide moduan, laguntza hau ustiategi bakar batean konputatuko da, eta bazkide edo kiderik gehien duen ustiategi elkartua lehenetsiko da.

12. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

12.1 Kide anitzeko balorazio organoak proposatuta, espedienteak indarreko araudiaren ara-bera eskumena daukan foru organoak ebatziko ditu. Ebazpenak administrazio bidea amaituko du, eta horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, errekurtsu horretarako araei jarraikiz. Gainera, aukerako berraztertze errekurtsua ere jarri ahal izango da.

12.2 Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.5 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozedu-raren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori hiru hilabetez luzatuko da ofizioz, Kudeaketa eta Kontrolerako Sistema Integratuan sartutako gainerako esku hartzeen kontrolen emaitzak jaso ez badira. Epealdi hori igaro eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, eskabidea ezetsi dela esan nahi du, ha-laxe xedatzen baitu azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 25.5 artikuluan.

12.3 Laguntzak emateko ebazpenek espediente bakoitzean ezarriko dute zein izango den laguntzaren zenbatekoa eta zein haren finantziazioaren jatorria. Laguntza murriztu edo txikitzen bada edo ebazpen negatiboa badago, arrazoa zehaztuko da, bai eta, hala badagokio, kopurua ere.

12.4 Laguntzaren ebazpena banan-banan jakinaraziko da eta aurreko atalean adierazitako informazioa emango da jakinarazpenean.

13. artikulua. Laguntzak ordaintzea

Laguntza ordainduko da behin Nekazaritza Sailak Batasunaren indarreko arautegian exiji-tutako egiaztapen eta kontrolak egin eta gero.

Ordainketa egin ondoren jakiten bada laguntza ematean zeuden inguruabarrak aldatu direla, deialdiaren urtean beste esku hartze edo laguntza batzuen inguruan egindako kontrolen ondorioz, baldintzak betetzearen ondorioz, eta abar, ordainketa egokia birkalkulatuko da, zehazten diren baldintza berriekin bat etorritz. Zenbateko hori ordaindutakoa baino txikiagoa bada, bien arteko aldea eta berandutze-interesak itzulketa-espediente baten bidez berreskuratuko dira.

14. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Foru dekretu honetan araututako laguntzen onuradunek betebeharrak bete beharko dituzte:

14.1 Emandako dirulaguntza onartzea. Laguntza eman zaiela dioen jakinarazpena jasotzen duten egunetik aurrera, 15 eguneko epean laguntzari uko egiten ez badiote berariaz eta idatziz, onartu egin dutela ulertuko du Administrazioak.

14.2 Foru dekretu honen babespean jasotako laguntzaren inguruan dituzten funtzioak ba-liatuz, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ogasun sailek, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileko organo eskudunek, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europar Ba-tasuneko organo eskudunek eskatzen duten informazio oro ematea.

14.3 Laguntza zuzen eman dela egiaztatzeke behar diren kontrol guztiak gainditzea.

14.4 Dirulaguntzen Lege Orokorren Erregelamenduaren 31. artikuluan eta ezarritako informazio eta publizitate arloko betebeharrak betetzea. Halaber, onuradunentzat ezarritako informazio- eta publizitate-betebeharrak bete beharko dituzte, 2021eko abenduaren 21eko Batzordearen 2022/129 (EB) Beteazpen Erregelamenduaren 5. eta 6. artikuluetan eta II. eta III. eranskinetan zehaztutakoaren arabera.

15. artikulua. Ebazpenaren aldaketa, ez betetzea eta itzulketa

15.1 Laguntzaren xedea betetzen bada, baina dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, hura emateko ebazpena ere aldatu ahalko da.

15.2 Onuradunek ez badituzte betetzen Foru Dekretu honetan hartutako konpromisoak edo/ eta Foru Dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute emandako laguntza jasotzeko eskubidea, eta dagoeneko diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko diote nahitaez, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Hori guztia ez da oztopo izango bidezko ekintzak aplikatzeko, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen eta transferentzienak, ezarritakoaren arabera.

15.3 Zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, legez dagozkion ondorioetarako.

15.4 Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntza osorik edo horren zati bat itzuli behar den, ikuskapen edo kontrol txostenari eta itzultzeko proposamenari atxikiz, onuradunari entzun ondoren.

15.5 Dirulaguntza osoa edo horren zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritako arau hausteen ziozko zehapen prozedura abiarazi ahal izango da.

16. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradunek Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Araudian ezarrita dagoena bete behar dute, bai eta Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko gainerako xedapen aplikagarriak ere.

17. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Dekretu honetan garatzen diren laguntzak bateraezinak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste zeinahi diru laguntzarekin, xede eta helburu berdinak baditu, kontrakoa berariaz arautzen ez bada Europar Batasuneko, estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko edo foruko legerian, edota Espainiako NPBren Plan Estrategikoan.

18. artikulua. Laguntzen finantzaketa

18.1 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituetatik aterako dira, eta batera finantzatu ahalko ditu Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF), ehuneko 65eko kopuruan.

18.2 Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak finantziario gehigarria eman ahalko du, diru laguntza hauetarako baliabide ekonomikoak handitzera zuzenduta; zenbateko gehigarri hori estatuko finantzaketa osagarritzat hartuko da, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituen kontura.

18.3 Arabako Foru Aldundiak laguntzaren guztizko zenbatekoa ordainduko dio onuradunari, bai LGENFk finantzatutako zatia, halakorik badago, bai Arabako Foru Aldundiak berak finantzatutako zatia. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) datozen laguntzen zatia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek ordainduko dio Arabako Foru Aldundiari, haren erakunde ordaintzailearen bidez, abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan (Dekretu horren

bidez Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen dira), eta Nekazaritza Sailaren aurrekontu partidetan sartuko dira, xede horretarako irekitako kontuaren bidez.

19. artikulua. Iruzzurraren aurkako borroka eta interes-gatazka

Batasunaren eta Europako Funtsen kudeaketan inplikaturako administrazioen finantza-interesak babesteko, Foru Aldundiak iruzurraren aurka borrokatzeko politika indartuko du, eta laguntzen kudeaketaren gardentasuna zainduko du, NPBren baterako finantzatutako esku-hartzeen esparruan interes-gatazkako balizko egoerei aurre egiteko estrategiak eta neurriak ezarriz. Ildo horretan, 2023-2027 Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa (NBAP) Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko xedapenak ezartzen dituen Dekretuan xedatutakoari jarraituko zaio.

II. ERANSKINA

DEFINIZIOAK

Jarduera anitzekoa ez den nekazaria: foru dekretu honen ondorioetarako, parekatu egingo dira jarduera anitzekoa ez den nekazariaren definizioa eta nagusiki nekazari denarena (NNI). Jarduera anitzekoa ez den nekazaria da nekazaritza ustiategi baten titularra den pertsona fisikoa da, baldin eta, gutxienez, errenta guztiaren ehuneko berrogeita hamar bere ustiategian egindako nekazaritza jarduerarekin lortzen badu eta ustiategiarekin zuzeneko zerikusia duten jardueretara bideratzen duen lan denbora, urtean, nekazaritza lanaren unitateekin bat etorritik, lanerako denbora osoaren erdia edo gehiago bada. Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) alta emanda egon beharko du nekazaritza jardueran aritzeagatik, araubide horretan ezarritako Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian (NLSB) sartuta egon ala ez. Salbuespen gisa, Araubide Orokorreko Besteren Konturako Nekazaritzako Langileen Sistema Berezian alta ematea onartuko da. Aipaturako araubidean alta emanda egoteak eraginkorra izan beharko du eskaera bakarria aldatzeko epea amaitzen den egunean.

Errentak zenbatzeko, nahitaezkoa izango da banakako titularrek eta elkarte ustiategietako bazkideek azken ekitaldiko PFEZ aitortpena aurkeztu izana. Gainera, pertsona juridikoen kasuan, beharrezkoa izango da azken ekitaldiko sozietateen gaineko zerga aurkeztu izana.

Lan denbora zehazte aldera, pertsona batek urtebetez jardueran emandako denbora 1.800 ordukoa dela joko da (egunean 8 ordu 225 lanegunetan), 2023ko erreferentzia urtearekiko eman beharreko datuei buruzko Batzordearen 2021eko abenduaren 16ko 2021/2286 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren I. eranskinaren arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1091 (EB) Erregelamenduaren arabera (nekazaritza ustiategiei buruzko estatistika integratuei buruzko Erregelamendua, aldagaien zerrendari eta deskribapenari dagokienez, Batzordearen 1200/2009 (EE) Erregelamendua, Urteko Lan Unitatea (ULU) lanaldi osoaren baliokide gisa definitzen duena, indargabetzen duena).

Elkarte motako ustiategiak ez dira jarduera anitzeko nekazaritzat hartuko, baldin eta beren kapital sozialaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50 gutxienez duten kideen ehuneko 50 gutxienez jarduera anitzekoak ez diren nekazaritzat jotzen badira.

Lehen aldiz instalatzen diren nekazari gazteak, nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzen aldeko ebazpena jaso badute, NNI gisa hartuko dira, eskatutako errenta maila eta ehunekoetara iristen ez badira ere. Lehen instalazioko beste kasu batzuetan ere izaera bera izan ahalko da.

NNIren izaera zehazteko, Arabako Lurralde Historikoaren Ustiategiaren Erregistroak horretarako ezarritakoari lotu beharko zaio, ahal den guztietan.

Jarduera anitzeko nekazaria: jarduera anitzekoa ez den nekazaritzat hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten nekazariak.

Nekazaritza ustiategia: nekazaritza ustiategiaren titular berak administratutako ekoizpen unitateen multzoa, Espainiako lurraldean dagoena.

Ezinbesteko kasuak eta salbuespenezko inguruabarrak: Kode Zibilaren 1105. artikuluan aurreikusitako ezinbesteko kasuak aplikatuko dira, baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduaren 3. artikuluan aurreikusitakoak ere. Agintari eskudunek ezinbesteko beste kasu batzuk eta salbuespenezko inguruabarrak ezar ditzaketen arren, honako hauek hartuko dira halakotzat:

- a) Onuradunaren heriotza edo desagerpena.
- b) Onuradunaren lanerako ezintasun luzea.
- c) Hondamendi natural larria edo hondamendi naturalarekin pareka daitekeen fenomeno klimatologiko kaltegarria, ustiategiko nekazaritza lurrei kalte handia eragin diona.
- d) Ustiategiko abeltzaintzako lokalak ustekabeen suntsitzea.
- e) Epizootia, agintaritza eskudunak onartua, onuradunaren ustiategiko azienda bati edo osoari eragin diona.
- f) Mikroorganismo patogenikoek edo ingurumen faktoreek eragindako landare izurritea edo landare gaixotasuna, agintaritza eskudunak onartua eta onuradunaren ustiategiko laboreen zati bati edo gutxiegi eragin diona.
- g) Ustiategi osoa edo zati handi bat desjabetzea, baldin eta desjabetze hori ezin bazen aurreikusi eskaera aurkeztu zen egunean.
- h) Laborearen edo saldoaren zati batean edo osoan ekoizpena galtzea, eskumena duen agintaritzak onartu dituen basa faunak eragindako kalteengatik.

Eskaera bakarra: Kudeaketa eta Kontrol Sistema Integratuarekin parekatutako esku hartze zuzenen eta landa garapenerako esku hartzeen laguntza komunaren eskaera, abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuaren IV. tituluan ezarritakoaren arabera.

Nekazaritzako azalera: laborantzako lur, larre iraunkor edo labore iraunkorretarako erabiltzen den edozein azalera, lurrak erabiltzeko sistemak barne, lur horietan bertan zuhaitzak mantentzea eta nekazaritza uztartzen dituztenak.

Nekazaritza ustiategiaren titularra: pertsona fisikoa edo juridikoa, edo pertsona fisiko edo juridikoen talde oro, ondasun erkidegoak, jaraunspen banatugabeak edo oinordekoen erkidegoak, merkataritza helbururik gabeko sozietate zibilak eta titulartasun partekatutako araubideko ustiategiak barne, nekazaritza ustiategian egindako nekazaritza jardueri buruzko erabakiak hartzeko ahalmena duena, etekinak lortzen dituen eta nekazaritza jardueratik eratorritako enpresa arriskua bere gain hartzen duena. Ustiategiko abeltzaintzako ekoizpen unitateei dago kienez, Abeltzaintza Ustiategien Erregistroan inskribatuta egon beharko du, martxoaren 26ko 479/2004 Errege Dekretuan araututakoaren arabera. Ustiategiko nekazaritza ekoizpeneko unitateei dago kienez, Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Orokorrean (aurrerantzean, NEE) inskribatuta egon beharko du (erregistro hori urtarrilaren 16ko 9/2015 Errege Dekretuak arautzen du, lehen mailako nekazaritza ekoizpenean higiene arloko Europar Batasuneko araudia aplikatzeko baldintzak arautzen dituenak), edo, bestela, Nekazaritza Ustiategien Erregistro Autonomikoan (aurrerantzean, NUE), abenduaren 27ko 1054/2022 Errege Dekretuan araututakoaren arabera, eta hura indarrean jartzearekin bat.